

dion estimulu bera eragiten dit amaieraren indefinizioak».

Eta honako hau dakar liburua ixten duen diptiko modura antolatutako kontakizun bikoteak. «Ez dut asmorik segun eta zeinen eskuetan, azkenean, fikzio deliranteak izaten bukatzen duten benetako gertakarietan oinarritutako kontakizunen prestigioan babes hartzeko. Ez dut alter-egorik asmatuko ere: ni naiz protagonista, nahiz eta hain ni gaztea, ezen kalean harekin topo eginez gero, ez bainuke errekonozituko. Esaten dute organismoko zelula guztiak zazpi urtean behin berritzen direla, eta, beraz, nire orduko niak denbora izan du, gutxienez, bata bestearen ondoren, lau erreplikantetan berrargitzeko».

Barreneko erantzunak

1986an eman zuen argitara bere lehen ipuin bilduma: *T'hauria de caure la cara de vergonya*. Baina, 2006an, *Limoi bat imintziorik egin gabe jaten baduzu* izan zen Pamiesen izena zabalitzen lagundu zuen liburua, eta, egun, hori da euskaraz irakur daitekeen haren liburu oso bakarra ere, Gerardo Markuletak euskaratu eta Txalapartak argitaratutakoa. Haren beste hiru ipuin ere irakur daitezke, halere, *Hobe kontatzen ez badidazu* antologian. Quim Monzo, Imma Monso, Empar Moliner eta Frances Seres ipuingile katalanen lanekin batera topatuko ditu bertan irakurleak, Aritz Galarragak egindako hautaketari eta Gerardo Markuletak egindako itzulpenari esker.

Zehazki, *Erosketa zerrenda*, *Zeta naturala ehuneko ehunean* eta *Biziraupena* kontakizunak hautatu zituen Galarragak antologiarako. Eta azken horren hasiera adibide ona izan daiteke Pamiesen lanetan ohikotasunaren eta fantasiaren arteko muga zeinen erraz zeharka daitekeen azaltzeko. «Hainbeste aldiz gomendatu diote erantzunak bere barrenean bilatzeko non, hala-ko egun batean, espedizio bat antolatzen baitu. Espeleologo kasko bat, aihotz bat, piolet bat eta mendigoizale soka batzuekin ekipaturik, zeharkaldiari ekiten dio. Lehen pausua da zailena».

Baina kasu. Pamiesek kazetari-tzari buruzko ohar ezin ederragoa ere badakarrelako *Hiru kazetari* izeneko kontakizunean, eta ez delako komeni, beraz, Pamiesi buruz idazten dena eta Pamiesek idazten duena nahasterik. «Elkarrizketen kasuan, beti komeni da bere lagun Salvador Panikerren teorema aplikatzea: 'Elkarrizketatu guztiak geratzen dira elkarrizketatzailearen muga mentaletara murriztuta'». ●

KRIKA

Atzera begiratzearen beharraz

Irati Majuelo

Mesfida zaitetz, hala dio Bea Salaberriren azken argitalpenaren izenburuak. Mesfidantza, diskrezioa, klandestinitatea, bakardadea nagusi diren giroa ekarri du fikziora, eta, horien bidez, Euskal Herriko historian isilpean geratu diren pertsona, ekintza eta pentsamendu ugari egin die leku eleberri honetan. Honenbestez, mesfidantza bai, baina haren gibelean loratzen diren elkertasuna, grina eta ausardia ere ikusarazten ditu idazleak.

Euskal Herriko nazio gatazkaren bi une gako ditu testuingurutzat istorioak. Liburuaren lehen zatia Lizarra-Garaziko akordioaren ostean abiatzen da, eta, milurtekoa igarota, 2000ko hamarkadako lehen urteetako militantzia politikoak, poliziaen sarekadek,



'MESFIDA ZAITEZ'
Egilea: Bea Salaberri.
Argitaletxea: Txalaparta.

Hegoaldeko kideen aterpe bilakatu beharrak, Ipar Euskal Herrian izan zuten eragina azaltzen du. Bigarren parteak, aldiz, Luhusoko armagabetzearen aurreko garaia islatzen ditu, borroka armatuaren amaierak marka-

tutako erritmo-aldaketa eta gizarteak garai, hizkera eta borrokan egoteko modu berrietara moldatzeko egindako ahalegina. Transformazio horrek utzitako arrastoak eta minak, inertziak eta ilusioak. Memoria lan ederra da, alde horretatik, Salaberri proposatzen duena.

Memoria ariketa, alabaina, neska gazte baten bizipen partikularretatik osatzen da. Nafarroa Behereko landa eremutik Baionara ikastera, eta, bide batez, mundu berri bat ezagutzera joaten da Laurendia. Gaztetasun alai eta suhartsuak abiarazten du neskaren kontzientzia politikoa, eta ondoren, militantziari emaniko bizi bat, kontraesanak kontraesan. Elkartasunaren printzipioak oinarri nagusi izanik, behar zutenei atea zabaldu zieten laguntzaile anonimoetako bat da Laurendia, ETaren laguntza-sarean ibilitakoen adibide bat, historia kolek-

tiboa eraikitzen laguntzen duena. Halaber, nazio gatazkarekin elkarrizketan, XXI. mendean oraindik ere familiak duen pisua agertzen du Salaberri, egitura patriarkalek emakumeen bizitzetan eragiten dituzten baldintzapen eta pairamenak argitara ekarriz.

Deskribapenek ezaugarritzen dute eleberri honen idazkera. Xehetasun handiz aletzen dira paisaiak, pertsonaien bisaiak eta janzkerak, ekintzak zein keinuak. Tonu deskriptiboak zeharkatzen du istorio osoa, eta berezko estiloa ematen badio ere idazleari, istorioa hainbate-tan kargatuegi bilakatzen da. Alde horretatik, eta deskribapenei uko egin gabe, traman zehar elipsi gehiago tartekatzeak erritmoa arindu eta on egingo liokete istorioari, irakurleari dena kontatzeko beharrik gabe, loturak, hausnarketak, aurreikuspenak bere esku utziz. ●


KRIKA

Gabardina azpikoa Nori ez?

Imanol Mercero

Satorra, azkonarra, suga, saguzarra, untxia, hartza, azeria eta hontza. Horra zazpi ugaztun eta hegazti bat. Guztiak dira ezagunak, eta gertukoak horietako asko. Haatik, irakurleari erakutsi nahi zaio animalia hauen elikadura ohiturak zein diren, topikoak gainditu eta benetako jakintza eskuratu dezan.

Liburuak banan-banan erakusten dizkigu animalioak, formatu errepikatu batean: ezkerretara, mahai-zapien gisako hondo baten gainean, jatekxetako karta dirudien koaderno zabalgarri bat dago, hiru orrialdekoa. Kontura gaitzean koadernotxo hau itsatsita dagoela mahai-zapiaren gainean, *pop-up* erako liburua delako hau, hegal tolesgariak dituena. Koadernotxo honetan, bada, animalia bizi ohiturak aipatzen dira lehen orrialdean, bigarren-



'EZETX ASMATU ZER JATEN DUDAN!'
Idazlea eta ilustratzailea: Katerina Gorelik.
Itzultzailea: Imanol Salegi Urbieto.
Argitaletxea: Ibaizabal.

goan dieta, eta hirugarrenean menu jakin bat deskribatzen zaigu (Satorra: «Zizare fideo kurruskariak txirla ugari-ekin»). Eskuinetara animalia erreturatu antropomorfoa dago, bi hegal tolesgarri dituena arropatan. Hegal hauen atzean dietaren hainbat adibide daude, gizakien ohituretara ekarriak (Satorra: «Zizare ogia, sushi lirdingatsua...»). Emaitza jolasaren eta jakintzaren arteko oreka itzela da. ●

KRIKA


Nori ez?

Imanol Mercero

Nori ez zaio gertatu larritasun eskatologiko bat izatea, leku eta une desegokian? Norberarena aitortzeko prest ez izanagatik ere, gogoangarriak dira halako anekdotak, eta kontatzen direnean barre konplizeak eragiten dituzte.

Kasu, aurreko paragrafoan adierazitakoa ez da nire burutazioa, baizik eta album ilustratu honek zabaldu nahi duen aldarrikapena, azken orrialdeetan hitzez hitz esaten zaigunetz.

Baina has gaitzean hasieratik. Album ilustratu handia da hau (29 x 24 zentimetro), sinpletasuneran jotzen duten kolore biziko ilustrazioekin osatua. Ipuin klasikoetan hain ohikoa den egitura hirukoitza erakusten du. Testua ezinbestekoa da kontaketa bere osotasunean jasotzeko, eta, hala ere, irudiek kontaketa ardua bere gain hartu dute,



'KAKALARRRIA!'
Idazlea: Alessandra Requena.
Ilustratzailea: Guilherme Karsten.
Itzultzailea: Nahikari Gabilondo.
Argitaletxea: Ibaizabal.

emozionalki zein narratiboki. Dudarik gabe ipuin honen balio azpimarragarrienak bi dira: anekdota unibertsal bati gidoiak ateratzen dion mamia batetik, eta ilustrazio lanak erakusten duen kontagintzarako gaitasuna bestetik.

Bide batez, ilustratzaile honek (Karsten) bere abilezia erakutsi zigun *Munstroa al zara?* eta *Auto-stopean* albumetan ere. Ziur naiz gogoan dituzuela. ●